

## **KABLEBARIK SA: FUNTSEZKO SOZIJETATEAK**

Gure enpresak **Kablebarik SA** izena du eta mugikorren bateria amaigabea izatearekin lanean ari gara, horretarako proiektu bat osatu dugu.

Gure proiektua jakinik mugikorrekin lotura zuzena duela, mugikor enpresekin kontaktuan jartzea beharrezkoa egiten zaigu. Nahi dugun plaka hori sortzeko, ezinbestekoa da hornitzaile moduan mugikorrak egiten dituen enpresa izatea. Gainera, telefono gailuez ulertzen dutenez gain, energia berriztagarrietan aditua den taldea ere beharko dugu guk nahi dugun plaka sortzeko. Enpresa horiek guretzako beharrezkoak dira bestela ezingo dugulako guk pentsatutako ideia aurrera eramane.

Kontaktuan bi enpresekin jarri gara; batetik, **Xiaomi** enpresarekin, eta bestetik **APPA** energia berriztagarrien enpresa. Xiaomi mugikor marka bat izateaz gain, berak ekoizten ditu pertsonalki mugikorrak, hau da, ez dizkio beste norbaiti erosten eta markaren izena bakarrik jartzen. Beraz, oso interesgarria iruditu zitzaigun beraiekin kontaktatzea. Bestalde APPA enpresa-rekin lehenago ere kontaktua genuen eta zerbait egin nahiean zegoen mugikorren mundura integratzeko, proiektu honekin beraz guztiz integratuko da mundu honetara.

Nahiz eta Xiaomi markaren izenean atera mugikorrak, plaka bera bakarrik ere ekoiztiko da eta beraz, beste konpainiek hori erostea edukiko dute eta beraiek ekoiztutako produktuei ezarri.

Plaka hau daramaten mugikorrak erosi ezin dutenentzat, funda bereziak egitea ere pentsatua daukagu. Funtzioa berdina izango da, baina ez da horren eraginkorra izango, izan ere, mugikorrean doan plaka egokitua egongo da mugikor bakoitzera eta beraz hobeto funtzionatuko du. Baina, behar adina diru ez dutenentzat opzio bezala bigarren hau egongo da.

Proiektu garrantzitsu hau aurrera eramateko enpresa bakoitzak funtsezko baliabideak ezarri ditu. Gure enpresak, marketina eta ideia aurrera eramateko proposamenak jarri ditu mahai gainean, eta gure esku dago dena aurrera eramatea beste enpresekin kolaboratuz. Xiaomi enpresak, lehengai eta beharrezko baliabideak jarri ditu gailua egiteko. Azkenik APPA enpresak plakaren instalazioa eta ezaugarrietan lagundu digu.

Enpresa hauen kolaborazioak ikaragarri lagunduko digu gure proiektua gauzatzen eta beraz segurtasun bat ematen digute. Arriskua badago gaizki ateratzearema, baina horrelako profesionalekin elkarturik ez dugu uste gertatzerik dagoenik.